

ROKODROMOAN IKUSIKO DUGU ELKAR

Antxon Narbaiza

LIBREADUN txoferraren Honda motorra Tapiokarako azken aldatsa jaitsi eta astiro-astiro udaletxeko plazara sartu zen. Zerbait garrantzikoa zekarren nonbait, haren itxurari erreparatuz gero: mardo eta zuzen zihon tapiokatarren etxera, bere uniformeko txamarraren mahukak doituz, plazan eserita zeuden gizon-emakumeek harriduraz begiratzen ziotelarik. Administrazioarekiko auzietako salaren epaiarekin ote zetorren?

Prontziok leihora begiratu eta ostean zebiltzan katu biren arteko harramazkadak jarraitu zituen. Ezer gutxi gertatzen zen Tapiokan. Bere makilapeko herri hartan dena zen bizirauen luzekoa. Dena izan ohi zen luzarorako bertan. Bizidunak eta bizigabeak. Gizakiak eta gainerakoak; harriak, zuhaitzak, zubiak... Kaleko animalia oro, esaterako. Harako moldez non kale kantoi bakoitzean bizi ohi ziren etxekotu gabeko katu nola txakur guztiak zeinek bere izena izateaz kanpo bizilagunek ezin hobeto identifikatzen baitzituzten urteen poderioz.

Are gehiago, Inersio-ko Benidorm-erako autobusean, adibidez, albo herriko Portuetxen baino zahar gehiago joan ohi zen, batez beste. Uste zen Elurmendi gailurraren eragin osasungarriatik zela: iparraldetik sartzen zen haize hezetik asko babesten omen zuen Tapioka. Portuetxen, ostera, mendiaz bestaldean, lanbroa sartu eta egunak egoten omen ziren ia argirik itzali gabe. Horregatik kontrako jarrera izan ohi zuten beti mendiaz bestaldeko herrikoek, Elurmendi zulatuz, esaterako, herri biak lotu zitzakeen tunelaren aldeko proiektuarekin. Alkate jauna ez zen batere harritzen amerikarrek hartu behar zuten erabakiaz. Askok zekiten yankee-ak. Seguruenik beren CIAren bidez jakinaren gainean izango ziren tapiokatarren osasun onaz.

–Horiek dena hartzen dute kontuan, –zioen bere artean Halafede jaunak. –Mutil onak dira, ba!

Haurrentzako ludoteka eta aisialdigunea esplikatuak geratu ondoren, festa-batzordeko zinegotziak beste eraikina, eraikin sorpresaren egitasmoa aurkeztu zion herri-asanbladari.

Solemnitate handiz alkate jaunak izara handi bat jaso eta azpian zurezko maketa eder bat agertarazi zuen. Une hartan, propio norbaitek gidatu izan balitu bezala, aretotxoan, aurreko aldean ziren hiru emakumeek –espontaneitate osoz begitankorrenen kaltetan– txalo zaparradaz hartu zuten Prontziok erakutsi zuena.

–Hona hemen gure egitasmo bikainena. Horrelakorik ez da ez Tapiokan, ez Portuetxen, ezta, probintzia guztian ere ikusi.

–Hiriburuan ere hortxe-hortxe, –bota zuen jende artetik arestian aipaturiko emakume baten ondoko gizasemeak.

–Inguruko onena eta erabilgarriena dena. Tapiokatar

guztien gozamenerako. Alde batean, ludoteka, zine eta antzoki aretoa. Biak gero! Hori alde batetik. Eta, hara, kirolgunearen erdi-erdian ezar dezakegun eraikina, tapiokatarren harrotasuna piztuko duena: rokodromo. Eta ez nolana hiko. Zenbat neurtzen du Elurmendiko harkaitzak? –galdetu zuen ozenki Inazio Arbelbide arkitektoak bere galderen erantzuna ezin hobeto zekien baten segurtasunaz.

–25 metro inguru –ihardetsi zuen Pello Karakotek arestian aipaturiko festa eta kirol batzordeko zinegotziak.

–24 –zuzendu zion besteak.

–Bada, gure rokodromoak 26 metro eta 50 zentimetro neurtuko ditu. Beraz, bi metro pasatuxe gehiago. Eta ez konpara! Elur, kaskabar, euri zein haizete, Tapiokako rokodromoan zuen herriko gazteek beti –eta berriro ere azpimarratu zuen hitza: –beti, praktikatu ahal izango dute eskalada.

–Ez da nire betekizuna horrelakorik ebatzea –bota zuen ozenki Josu Aretxagagoitiak, Diputazioko Kirol Jardueren arduradunak, herritarren aurrean –baina horrelako azpiegitura batek kirol jarduera handia ekarriko du. Seguru monitoreak. Eta monitoreek kirol dendak eta kirol dendak gizarte sanoagoa eta...

–Gizasemeak bere jarduna bukatu orduko, berriro ere jendartetik emakume bulartsu baten ahotsa entzun zen:

–Gora Tapiokako herria.

Gora gure alkatea!

Halafede jaunak horrelako atxikipen gartsua entzun ondoren, “Gora aurrerapena! Gora tapiokatarrak!” erantzun zion asanbladari.

Inazio Aboitzlarrea Eusko Administrazioako I+Dko arduraduna jardunean ari da alkate-zinegotzietan:

–Aukera hau ezin duzue pasatzen

utzi. Topikoa izango da esatea, baina egia osoa da. Tapiokak jasoko dituen mozkinak mila aldiz handiagoak izango dira eragozpenak baino.

Hasierakoak baino ez. Obrek eragindako zikin piskat. Zarata, kamioien trafikoa... Baina guztia kontrolpean izatea espero dugu. Administrazioaren bermea daukazue.

Prontzio Halafedek, gertakari azkarrez pasatzen ziren sekuentzien bidez akziozko pelikula azkar bat ikusten jardun balu bezala, bere herriaren etorkizun hurbila aurreikusten zuen. General Rotors-en faktoriak ekarriko zuen aberastasunak berbizitu egingo zuen Tapioka: industria jarduerak hedatuko zuen lan gehituaz kanpo, zerbitzu sektorearen garapena handia izango zen: dendak, jatetxeak, banketxeak, tren geltokiaren erabilera usua...

Gauza batek kezkatzen zuen alkatea. Bere hitzaldiak emateko uzkuratuna. Jendaurrean hitz egiterakoan motz geratzen



zen. Edo hitz totalka. Juanito maisuak lagunduko zion, hitzaldia idatziz prestatzen. Prontziok emango zizkion ideia nagusiak eta maisuak dotoretu eta ordenatuko zizkion. Beharko! Bestela... eskolak txukun eta ongi artatuak mantendu nahi bazituen... Horregatik egun hartan ohi baino goizago itzuli zen gutxera.

–“Zenkiu. Beri Guz... Guz Mornin” –Emazteak harriturik begiratzen zion.

–Baina gizona, zertan ari zara ispilu aurrean imintzioka? Zera ematen duzu, Charlie Rivel pailazoa.

–Ai Adela neria. Bazeneki zelako atarramenduak pasatu behar diren alkatetza sufridu honetan! Baina ez da luzarorako izango. Ikusiko duzu. Aurki da Egun Handia.

*

Tapiokako udaletxean ez da ezagutu aspaldiko urteetan horrelako aktibitateak. Udalbatzar aretoak nekez lor dezake telebista kamera, mikrofono etabarren kokalekua aurkitzea. Mendilaua jauregiko argi erraldioak urrutitik ikusten ziren. Tapiokako eraikin enblematikoa oso gutxitan ikusten zen hain arranditsu. Areto hartan, jende inportantea biltzen baitzen. Aurkezpenak egin ondoren, gaztain mahai handiaren inguruan ziren ezker eskuin, John Bushinger G.R. automobiletxearen firmaren Europarako zuzendari nagusia. Haren ondoan, enpresa bereko Koldo Azurmendigoitia Hego-Europarako ordezkaria eta egun hartan itzultzaile lanetan. Etxekoen artean alkatearekin batera, on Juan, Juanito hurbilenekoentzat, maisua eta era berean zinegotzi, eta, arestian ikusi dugun legez, alkatearen hitzaldi-dotoretzailea. Beraren ondoan Karmelo Gorosta, auzo zinegotzia eta baserriar ohia, paperolarako pinu tasatzaile lanetan ziharduena. Bertan zen baita, aipaturik geratu den Inazio Arbelbide arkitektoa. Azkenik, Jon Adrailu, kontratista berau eta Eraikitzaileen Elkarteko ordezkaria, egitasmo haren benetako *alma-mater*-a zirudiena. Esaten zena jasotzen grabagailua martxan eta, badaezpada ere, luma eta papera, Puri, joan deneko 30 urtean idazkari laguntzailea. Idazkariari propio jai eman diote eta. Susmoa baitu alkateak hark gehiegi hitz egiten duela eta bere herrian –gizona ez baita Tapiokako– kontaktatilu ibili ez ote den.

Adrailu, Arbelbideren baimenarekin, planoak mahaian zabaldu eta astiro-astiro hitz egiten hasten da. Amerikarrak horrela hobeto ulertuko duelakoan.

–Hara, Elurmendi leutzen badugu 300.000 m² atera dezakegu.

–Gutxienik. –Amerikarra *okey, okey*-ka ari da, bere Europako morroiak itzuli ahala. Lurraren porositatea ere aztertu duela eta balitekeela metro gehiago ateratzea. Beren Nebraskako laboratorietan ikertu dute, badaezpada, Elurmendiko lurra. 4.000 lanpostu zuzen sortuko dituztela hasiera batean eta bi urteren buruan beste bi mila gehiago agintzen du. Prontziok eskuaz zenbakiak markatzen dizkio amerikarrari besteak irribarretsu baietz erantzuten diolarik. Dena pentsatua dago. Amerikarrek teknika berriak erabiliko dituzte leherkaririk gabe mendia desagerrarazteko. Hitzaz ez zaio alkateari gustatu baina tira. Halaber, Adrailu-ren langileek amerikarrek utzitako hondeagailurik modernoak erabiliko dituzte. Sinadura baino ez da falta.

*

Alkatea eta eraikitzailea –euren ustez azkenekoz– Elurmendira igo dira. Azken aipatuaren *todo-terrenoak* arin zapaldu ditu kaletik dauden lehen lau kilometroak. Handik gora ezin autoz jarraitu luperiak bidea moztzen baitu. Beste ordu erditxo bat eta gailurrean daude.

Udazkeneko egun tipikoa zen. Haize firfirek gure bi gizonen aurpegiak laztantzen zituzten beraien ile bakanak tentetu nahian.

–20 urte izango dituk ez naizela gure zorioneko mendira igo –Prontziok.

–Neu ere hortxe-hortxe.

Urrunetik hurbilera, mendebaldetik ekialdera, Kantabria, Bizkaia eta Gipuzkoako itsaslabarrak nabarmentzen ziren. Han eta hemen, urdinak hainbat ñabardura eskaintzen zuten, beti ere ur bazter ezin bareagoa erakutsiz. Noizbehinka, haizea lagun, antzarrak izan zitezkeen hegazi

saldoak pasatzen ziren beren kua-kua etengabeak entzuten zirelarik.

–No. Gogorra duk hau denau galdu beharra –Prontziok.

–Hasieran pena hartzen duk, baina gero amaituta ikustean... Pentsa, gaur industrialdeak herrietako hirigintza baino hobeto diseinatuak eta eraikiak zeudek... Itxurosoagoak –amaitu zuen Adrailu.

–Bai, baina. Nik barruko harra zeukeat. Erreferenduma egin beharko genikek. Horrela lasaiago geratuko ginategiek. Ni neu ere hasia nauk gauzez loak hartu ezinik.

–Ez gizona. Ez duk komeni. Nahiz eta gurek irabazi, horrek obren atzerapena ekarriko likek. Orain gauden bezala, ez zekitek, ez zekiagu zenbat diren. Erreferendumaren ostean, aldiz, jakin egingo dizkiagu eta badakik... Gutxi izanda ere, beren borroka bizirik mantentzen lezaketek...

*

Pankartak udaletxe atarian. Giro gorria. Gazteek barrua nahi dute. Atean Xixilio udaltzainak, Erramun udal iturgina eta aldizkako ehorzlearen laguntza dauka. Nekez eusten diote udaletxeko atetzarrari.

–Herriaren garapenaren kontra zaudete, –balkoitik Prontziok.

–Hori ez da garapena. Hori desarrollismoa da.

–Hori, hori, –gazteak nagusiki, –desarrollismoa.

–Txaloak.

–Hitz hutsak. Hemen egintzak behar dira. Eta udalaren ekimen honek aberastasuna ekarriko du tapiokatarrentzat, –temati alkatea.

–Gutxi batzuk aberastu, beste asko izorratu. Luzarora danok.

–Guk gauza konkretu batzuk eskaintzen ditugu herriaren alde. Beste askok ezin dute horrelakorik esan, –alkateak.

–Bai. Mendia desagertarazi eta ordainetan rokodromo zorritsu bat. Guk biak nahi ditugu. Negurako rokodromoa eta udarako Elurmendiko harkaitza.

–Zuen adinarekin horren kontserbadore izatea ere! –Eta deblauki leihoa itxi eta barrua sartu da alkate jauna.

Ordu erdi ez da pasatu izango eta Fraisko Mari eta Zelestino herriko gazte asanbladaren izenean alkatetzan dira. Hitzak sarrera dotorerik gabe jaulkiak dira:

–Elurmendi leuntzea gogorra iruditzen zaigu.

–Baita neuri ere –alkateak. –Baina hasieran bakarrik.

Zergatik eze... gero ondo pentsaturik... zer da Elurmendi? Kristau bat, pertsona bat? Gauza bat, mutilak! Gauza bat!

–Baina... beti egon da hor, beti eta... –gazteak.

–Eta zer? Eliza ere hor dago. Galant askoa. Baina joan zen urteko abenduan kanpandorretik sartu zen tximistak azkar asko barruko guztia erreko zuen Jesus herrenak bere betiko mozkorrarekin kale gorrian zebilela abisatu ez balu.

–Hori Naturaren eraginagatik izan zen. Hemen, berriz, guk, andre-gizonok eragiten diogunagatik.

–Zer uste duzue? Hemendik 100, 200 urtera inor gogoratuko dela Elurmendi? Perspektiba handiagoa behar da, gizona, perspektiba!

–Guk gazteok kalea bezainbeste maite dugu mendia. Eta zer esanik ez Elurmendi.

–Maite, maite. –Bere jarlekutik irten eta mutil biegi zuzentzen zaie:


–Hi zenbat aldiz igo duk Elurmendira, Xeles?

–Ba... behin edo.

–Eta hi, Fraisko? –Oldarkor ari da alkatea menderaturik balitu legez.



-Bitan bai behintzat.
 -Bi aldiz, 25, 26 urteko gazteak! Ez al zarete konturatzen obra honen atzean dagoen filosofia? Perspektiba, perspektiba!! Gu, zuen moduko gazteak, herrian gera zaitetzen ari gara lanean. Berton.
 -Hi Fraisko, esaterako, nora joaten haiz lanera?
 -Ni? Labarrara.
 -Errepide estua. Eta euria egiten duenean... Kilometroak ere ez gutxi.
 -25 harantz. Beste horrenbeste honantz -Fraisko Marik.



-Hi berriz, Zelestino, zer esanik ez. Hiriburura. Malmasingo infernua egunero pasatu beharra ere. Gizajoa! Bizitza arriskuan beti! Zuek ba al dakizue zein ondo geratuko zaretzen hemen "su pazter xokoan" inora gabe? Eta General Rotors-en lanean. Zuzenean berton lana. Herrikook lehentasuna izango baituzue. Azterketarik gabe. A! Eta ikastaroak egitera noranahi bidaliko zaituzte, gaur Alemaniara, bihar Estatu Batuetara... Eta kotxea atean inork baino merkeago. Hutsa ordainduta. Zelako pagotxa!

-Zertarako beharko dugu autoa baina. Herrian lan egin behar badugu?

-Andregai edo neska-laguna izango duk ba... -alkateak.

-Ez. Alerik ere ez -Fraisko Marik.

Alkateak, harriturik, ia zer esan ez dakiela:

-Bueno ba... Gernikara, Durangora... joango haiz ba... partiduak ikusiaz sos batzuk irabazi eta gero afari ederra eta...

-Dirua jokatzeko ez zaigu gustatzen -Fraisko Marik.

Alkateak balkoira hurbilarazi ditu gazteak. Kortina zabaldu eta Elurmendi aldera luzatu du hatz erakuslea, tinko, itsas nabigatzaile ospetsua bailitza. Gailurra lainoz estalia dago, maiz bezala.

-Ikusten? -esaten die gazte biei, -Hodei handi batek estalia balego bezala irudikatu behar dugu geure mendia. Estalia, betiko. -Eta errepikatu egin zuen: -**betiko**. -Eta hitza sendo eta ozen erakutsiz, honelatsu jarraitu zuen:

-Tira, tira, horrenbeste istilu mendi bategatik. Iparra sartzen den egunetan bezala irudika ezazue. Eta kitto.

-Mendirik gabe ez ginatete tapiokatar sentituko. Zerbait, besoa edo hanka erazi izan baligute bezala. Umezurtz. -Gazteek.

-Umezurtz, umezurtz. -Barrutik marmarka ari da Prontzio. *Por imposible*, utzi ditu. -Mutil zahar koadrila honekin nora joango haiz, ba?...

*

"Ni Joannes Mendiola, oinordekotza honetan zera aitortzen dut: Elurmendi mendiko Mendiola deritzon parajeon, non nire jabetza den *Mendiola sakonuna* alorrean, Jesukristo Gurutzekoari eskainitako basiliza bat eraiki dadin 100.000 marabedi uzten ditudala. Beroriekin batera, 60 pago altxuma landa daitezen beraren inguruan. Nire ondorengoei eskatzen diet:

zaindu ditzatela garbi eta aratz ermita eta zuhaitzak. Eta Natura edo gizatxarren eraginez erauzi edo eror baledi ezer ermitatik edo zuhaitzen bat hondatu, konpondu edo ordezkatu dezatela. Tapiokan, 1790eko maiatzaren 3an, Santa Kruz egunez"

Telefono hotsa. -Gotzaindegitik? Mendiola Santa Kurutzeko ermita harriz harri Laupagoko alorrera eramango dugula agindu diot Gotzainari.

Ez da, baina, gotzaina, elizbarrutiko artxibozaina baizik. XVIII. mende amaierako agiri bat agertu dela. Lurren jabea zenaren azken borondatea.

Adarra jotzen ari dira. Ez du beste argitasunik ikusten. Kotxea hartu eta gotzaindegira joateko gogoia datorkio.

-Baina ez al diogu agindu, harriz harri, arbolak eta serora barne, denak, Laupagora eramango ditugula? Asegurua ere eginen diegula. Zer arraio nahi dute hauek? Hori ezinezkoa da. Duela 200 urteko ipuinekin ezin da ibili. Herriaren etorkizuna dago jokoan.

Argentinan bizi diren oinordekoek ezetz eta ezetz. Testamentuak garbi dioela. **Han bertan** nahi zuela ermita, bertan zuhaitzak. Jai dagoela beraiekin. Ez etortzeko eskaintza pozintsuekin. Bost urte barne bisitan datozenean Santa Kurutzeko ermita, Elurmendipean, hantxe, ikusi nahi dutela. Baina ustezko irmotasun hark ez ditu proiektuaren aldekoak kikilduko.

-Denok dugu prezio bat. Haiek eta guk, -pentsatu du bere artean Jon Adrailuk.

*

Girnaldak, banderatxoak, amerikar eta gainerako gizaseme-andere ospetsuak hartzeko egin ziren lan guztiak amaituak ziren nonbait. Tapioka berri ere egunerokotasunera itzulia ote zen?

Hain zen bere barne hausnarketan murgildua non bulegoko telefonoa jotzen entzun bai, baina hartzera mugitzeko erreflexurik ez zuen izan. Halako batean hartu, hartu zuen tramankulua baina beste aldekoa aspertu nonbait eta eskegi egin zuen.

Jakinminak jasotako mezuak entzutera bultzatu zuen ia berehalakoan:

-Prontzio, Jon nauk. Jon Adrailu. Buruari bueltaka jardun diat. Eta... (etena). Ba... (monosilabo zenbait... zalantza), pentsatzen jardun diat. Horrelako aukerak behin bakarrik etortzen dituk baina ideiak sor dagoen ardatzarena bezala, eragin eta eragin eta zoli jartzen dituk, erabilerrazagoak... Niri ere, ideia berri-berria etorri zaidak. Pentsatzen jardun diat eta... zein ondo etorriko litzaigukeen teleferiko bat herrian!! Horrela, astiro-astiro, Elurmendi potentziatuko genikek. Irudika, jendre-aldrak Santa Kurutzeko ermitaraino. Bertan, bi hotel eraikiko genizkikek, luxuzkoa bata, erosotasun eta aurrerapen guztiakin. Bestea, arruntagoa, aterpe antzera, gazte jendea erakartzeko. Eta, badakik, ondo aterako balitz, beste zerbaitetan pentsatzen hasiko ginatetekek... Egitasmo bikaina, nire ustez, bikaina. Ikusiko dituk planoak... Prontzio, hor al hago? Erantzuidak lehenbailehen.

*

Hemen natza, lasai, pikondo baten usain sarkorra nireganatzen. Emaztea eta biok etorri ginen batera. Ez gara geure etxean gaizki bizi izan baina... laz arte. Adelari gaisotasun neurologiko horietako bat etorri zitzaion bapatean. Dardara beso batean, ibilkera arraroa eta kontrolaezina eta horrelako aje batzuk. Horregatik erabaki genuen *hotel* honetara etortzea betiko. Egia esatera, harrotasun puntu batez ere etorri ginen. Izan ere, neronek edo behintzat nire udal korporazioak erabaki zuen etxe hau eraikitzea. 20 urte igaro dira, eta ez da nik esateagatik baina nekez ikusiko duzue inguru guztian horren eraikin zaindu, ongi artatu eta osasuntsuagoa. Eta nola diren gauzak. Amerikarrek agindurikoa ez betetzeagatik utzi behar izan zuten berme-diruaz eginikoa da.

Bitxia da. Urte hauetan neure burua janzteko astia izan dut. Gauzak erlatibizatzen erakutsi dit bizitzak. Elurmendi zutik dago. Zergatik? Duela 20 urte gazte hark eman zidan arrazoia balio dit: "hor dagoelako. Beti hor egon delako" Eta egia da. Ikusmira bikaina du gure logelak. Ipar zein hegotik, mendebal zein eguzkialdetik, gure mendiaren gailurra ikusten dut. Eguraldia lagun, begira izaten dut, etengabe, erasokor, zerbait aurpegiratu nahi balit bezala. Eta seguru nago. Prest legoke niri penitentzia latza jartzeko. Eta ez dut ametsik behar Elurmendi apala, hazi eta hazi, sumendi erraldoi bilakatu eta bere ahutzetatik nireganantz suzko harriak bidaltzen irudikatzen. Bera desager zedin egin nuen ahalegin suitsuarengatik. □